

Donostiako II. Sagardo azoka

2013/08/10 - 2013/08/17
DONOSTIA
GIPUZKOA



AI PAM ENAK

Donostiako Sagardo azokaren bigarren edizioa abuztuaren 10tik 17ra bitartean ospatuko da, Donostiako Aste Nagusiaren ospakizunarekin bat eginez.

Ekimena Grosse Katalunia plazan kokatuko da eta eguerdiko 12:00etatik gauerdiko 00:00etara bitartean zabalduko ditu bere ateak egunero. Euskal Herriko Sagardo Mahaia sagardogileen elkarteak (Gorenak zigiluaren sustatzaileak) antolatu du azoka. Inaugurazio ofiziala abuztuaren 11ean gauzatuko da, 19:00etan, Juan Karlos Izagirre Alkateak parte hartuko duen ekitaldi batekin.

Ekintza gastronomikoari dagokionez, bi gune desberdin aurkitu daitezke: batetik zutik jateko eta, bestetik, eserita. Horrez gain, pintxoak, ratioak eta postreak egongo dira aukeran. Edateko sagardoa edota muztoa eskainiko da. Guztira 4 sagardo upel eta 13 sagardo botila marka dastatu ahal izango dira.

Zuzeneko emanaldiak ere antolatuko dira azokak irauten duen bitartean, hala nola: Iban Nikolai (didgeridoo jotzailea), Arkaitz Miner eta Juan Arriola (bibolin jotzaileak), Dasta Musik (musika elektronikoa) edota Maider eta biar (trikitilari bikotea).

KOKAPENA

Katalunia Plaza (Gros auzoa)

Donostia

